

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Berrizko Udala**

2023-302027 Alkatetza dekretua, 2023rako dirulaguntzen deialdia onartzen duena.

2022ko azaroaren 16ko udalbatzak onartuak eta behin betiko onarpena 2023ko urtarilaren 25eko 17 zenbakia duen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira:

BERRIZKO UDALERRIKO ENPRESA-EKIMENA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEN DITUEN ORDENANTZA

Eta Tokiko Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, Alkatetzak dekretu bidez erabaki du:

Lehena: 2023 urterako diru-laguntzen deialdia onartzea, honako honen arabera:

— Berrizko udalerriko enpresa-ekimena sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituen ordenantza

Bigarrena: Diru-laguntzetarako hasierako kopurua 24.000 eurokoa izango da eta 2410.47100 aurrekontu partidari dagokio.

Hirugarrena: Eskabideak eta dokumentazio osagarria aurkezteko epea deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik, 2023ko irailaren 30era izango da, egoitza elektroniko bidez.

Laugarrena: Erabaki honen berri Udal kontuhartzailetzari jakinaraztea eta Bizkaiko Aldizkari ofizialean argitaratzea.

Berrizen, 2023ko otsailaren 28an. — Alkatea, Rolando Isoird Refoyo